DANOBATGROUPEN INFORMAZIO SISTEMAK ERABILTZEKO ARAUAK HORNITZAILEENTZAT

1. XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA

1.1. Dokumentu honen xedea da DANOBATGROUPen informazio sistemetan, sareetan, plataforma digitaletan eta ekipoetan sartzeko, horiek erabiltzeko, zaintzeko eta segurtasuna ziurtatzeko baldintza orokorrak ezartzea, kontratu edo merkataritza harreman baten barruan sistema horietara sartu edo taldeko informazioa tratatu behar duten hornitzaileei zuzenduta.

1.2. Arau hauek DANOBATGROUP osatzen duten sozietate guztiei (aurrerantzean, "DANOBATGROUP") aplikatzen zaizkie, eta nahitaezkoak dira DANOBATGROUPen jabetzako informazioa, datuak, softwarea eta azpiegitura teknologikoak zuzenean edo zeharka eskuratu, biltegiratu, prozesatu edo kudeatzen dituzten hornitzaile, azpikontratista eta baimendutako hirugarrenentzat (aurrerantzean, "HORNITZAILEA").

1.3. Arau hauek aplikatzekoak dira, erabilitako sarbide kanala edo bidea edozein dela ere; horien artean: hornitzaileen estraneta, erosketa plataforma elektronikoa (SRM), VPN konexioak, ERP sistemak, posta elektroniko korporatiboa, barne aplikazioak, lankidetza tresnak eta etorkizunean ezar daitezkeen plataforma digitalak.

1.4. Dokumentu hau onartzea ezinbesteko baldintza da DANOBATGROUPen informazio sistemetan sartzeko baimenak emateko edo horiei eusteko, eta baimen horiek ez betetzeak sarbideak berehala etetea eta kontratu nahiz lege arloko neurriak hartzea ekar dezake.

2. ALDEEN IDENTIFIKAZIOA

- DANOBATGROUP, S. COOP. (helbidea: Arriaga kalea 20, Elgoibar, Gipuzkoa, Espainia), informazio sistemen titularra eta kudeaketa arduraduna.
- HORNITZAILEA, DANOBATGROUPeko edozein enpresarekin merkataritza edo kontratu harremanak dituen pertsona juridikoa edo fisikoa, bere kabuz edo bere langileen edo azpikontratisten bidez sistema horietara sartzen dena.

3. PRINTZIPIO OROKORRAK ETA HORNITZAILEAREN BETEBEHARRAK

3.1. HORNITZAILEAK konpromisoa hartzen du une oro "Danobatgroupen Informazioaren Segurtasun Politika" eta indarrean dagoen araudi aplikagarria betetzeko, honako hauek barne: 2016/679 (EB) Erregelamendua (DBEO), 3/2018 Lege Organikoa, Telekomunikazioen 11/2022 Lege Orokorra eta ISO/IEC 27001 eta 27002 arauetatik eratorritako arauak.

3.2. HORNITZAILEA arduratuko da bere langileek, azpikontratistek eta laguntzaileek ere dokumentu honetan ezarritako betebeharrak betetzeaz.

3.3. Sistemetarako sarbidea gutxieneko pribilegioaren printzipioaren arabera emango da; beraz, esleitutako zereginak betetzeko behar-beharrezkoak diren baimenak baino ez dira gaituko.

3.4. HORNITZAILEAK bere gain hartzen du informazio sistemak fede onez, arduraz eta bidezko helburu batekin erabiltzeko betebeharra, eta DANOBATGROUPen interesen aurkako edo bidegabeko erabilera oro saihestuko du.

4. KREDENTZIALAK ETA SARBIDE KONTROLA

4.1. Sarbide kredentzialak (erabiltzailea, pasahitza eta ziurtagiri digitala) pertsonalak eta besterenezinak izango dira. HORNITZAILEAk izango du haien zaintzaren eta erabileraren erantzukizun osoa.

4.2. Berariaz debekatuta dago kredentzialak partekatzea, beste erabiltzaile batenak erabiltzea eta baimendu gabeko informazio edo sistemetara sartzeko erabiltzea.

4.3. HORNITZAILEAK konpromisoa hartzen du DANOBATGROUPek adierazitako aldizkakotasunez pasahitza aldatzeko, baita kredentzialak arriskuan egoteaz eta galdu izanaz duen edozein susmo berehala jakinarazteko ere.

4.4. Sarbideen alta, baja eta aldaketa oro DANOBATGROUPeko IT departamentuak zehaztutako kanalen bidez eskatu eta kudeatu beharko da.

4.5. DANOBATGROUPek edozein unetan eta aldez aurretik jakinarazi gabe eten edo ezeztatu ahal izango ditu sarbide baimenak, segurtasun arrazoiengatik, kontratua amaitzeagatik, ez-betetzeagatik edo zerbitzuaren antolaketan aldaketak egiteagatik.

5. EKIPO ETA GAILU KORPORATIBOEN ERABILERA

5.1. DANOBATGROUPek HORNITZAILEAren esku jartzen dituen ekipoak (eramangarriak, mahai gaineko ordenagailuak, telefono mugikorrak eta tabletak) kontratatutako zerbitzuei lotutako helburu profesionaletarako baino ez dira erabiliko.

5.2. Berariaz debekatzen da:

- Baimenik gabeko edo lizentziarik gabeko softwarea instalatzea.
- Aldez aurretik baliozkotu gabeko kanpoko gailuak konektatzea (USBak, disko gogorrak, etab.).
- Segurtasun konfigurazioak aldatzea eta administratzailearen pribilegioak lortzen saiatzea.
- Sarearen segurtasuna arriskuan jar dezaketen eduki edo zerbitzuetara sartzea (Dark Web, torrents, etab.).

5.3. DANOBATGROUPek **urruneko kudeaketarako, inbentariatzeko, zifratzeko, EDRrako, antibirus korporatiborako eta MDMrako** tresnak instalatu ahal izango ditu, segurtasuna kontrolatzeko, eguneratzeak egiteko, arriskuan dauden ekipoak isolatzeko eta ekintzen trazabilitatea bermatzeko.

5.4. HORNITZAILEAk ez du izango tokiko administratzailearen baimenik, idatzizko baimena izan ezean.

5.5. Ekipoak fisikoki babestuta egon beharko dira (saioa blokeatuta absentzietan, biltegiratze segurua lan ordutegitik kanpo, erabilera partekatua debekatuta).

5.6. Ekipoa galdu, lapurtu edo hondatuz gero, HORNITZAILEAk berehala jakinarazi beharko dio IT departamentuari, edo **zibersegurtasuna@danobatgroup.com** helbidera idatzi.

6. URRUNEKO SARBIDEAK ETA KANPOKO KONEXIOAK

6.1. Urruneko sarbideak soil-soilik VPN korporatiboaren edo DANOBATGROUPek onartutako beste mekanismo zifratu batzuen bidez egin beharko dira.

6.2. Konexioa ezartzen duten ekipoek antibirus eguneratua, suebaki aktiboa, eguneko segurtasun adabakiak eta sare babestuaren konfigurazioa izan beharko dituzte.

6.3. Debekatuta dago sare publikoetatik eta seguruak ez diren sareetatik konektatzea (adibidez, aireportuetako edo kafetegietako wifi irekiak) VPNrik erabili gabe.

6.4. HORNITZAILEAK ezingo ditu urruneko sarbiderako tresnak ez instalatu ez erabili (TeamViewer, AnyDesk, etab.) berariazko eta idatzizko baimenik gabe.

7. INFORMAZIOA ETA DOKUMENTAZIOA KUDEATZEA

7.1. DANOBATGROUPen jabetzako informazio eta dokumentazio guztia proiektu bakoitzerako esleitutako sare unitate, zerbitzari eta plataforma ofizialetan gorde beharko da.

7.2. Ezin da informazio korporatiborik kopiatu, lekualdatu edo biltegiratu gailu pertsonaletan, hodei publikoko zerbitzuetan eta baimendu gabeko kanpoko euskarrietan.

7.3. DANOBATGROUP ez da bere ingurune baimenduetatik kanpo biltegiratutako datuak galdu edo suntsitu izanaren erantzule izango.

7.4. HORNITZAILEAk DANOBATGROUPekin duen harremanaren barruan sortutako edo tratatutako datuak eta informazioa konfidentzialak izango dira, eta DANOBATGROUPenak baino ez dira izango.

7.5. Kontratua edo zerbitzua amaitzean, HORNITZAILEAk bere esku duen informazio eta dokumentazio guztia itzuli edo ezabatu beharko du, kopiarik gorde gabe, tartean kontserbatzeko legezko betebeharra ez badago behintzat.

8. KONFIDENTZIALTASUNA

8.1. "Informazio konfidentzialtzat" joko da HORNITZAILEAk DANOBATGROUPekin duen harremanaren ondorioz eskura dezakeen informazio tekniko, komertzial, finantzario, operatibo, estrategiko eta bestelakoa, dela euskarri idatzian, dela ahozkoan, dela elektronikoan.

8.2. HORNITZAILEAk betebehar hauek izango ditu:

- Informazio konfidentziala ez zabaltzea eta hirugarrenei ez jakinaraztea aldez aurreko baimen idatzirik gabe.
- Informazio hori kontratu betebeharrak betetzeko soilik erabiltzea.
- Zentzuzko neurriak hartzea, ez dadin galdu, aldatu edo baimenik gabe eskuratu.

8.3. Konfidentzialtasun betebeharra zerbitzua ematen duten langile guztiei, azpikontratistei eta hirugarrenei ere aplikatuko zaie.

8.4. Konfidentzialtasun betebeharra indarrean egongo da kontratu harreman osoan eta hura amaitu eta gutxienez bost (5) urteko epean.

9. DATU PERTSONALEN BABESA

9.1. HORNITZAILEA DANOBATGROUPen ardurapeko datu pertsonaletara sartzen bada, tratamenduaren arduradun gisa jardungo du, eta dagokion akordio arautzailea sinatu beharko du, DBEOren 28. artikuluaren arabera.

9.2. HORNITZAILEAk, datu pertsonalak tratatzeko, DANOBATGROUPek dokumentatutako jarraibideak baino ez ditu kontuan hartuko, eta debekatuta egongo da datu horiek norberaren helburuetarako edo hirugarrenei lagatzeko erabiltzea.

9.3. HORNITZAILEAk bermatu egingo du tratatutako datu pertsonalen konfidentzialtasuna, osotasuna, erabilgarritasuna eta erresilientzia ziurtatuko duten neurri tekniko eta antolaketa neurri egokiak aplikatuko direla.

9.4. Datu pertsonalen segurtasuna urratzen bada, HORNITZAILEAk berehala jakinarazi beharko dio DANOBATGROUPi, eta, betiere, detektatu eta hurrengo 24 orduen barruan.

9.5. Kontratu harremana amaitzean, HORNITZAILEAk datu pertsonalak eta kopia guztiak ezabatu edo itzuli beharko ditu, eta suntsipena agiri bidez egiaztatu beharko du.

10. SEGURTASUN INTZIDENTEAK KUDEATZEA

10.1. HORNITZAILEAk barne prozedurak ezarri beharko ditu DANOBATGROUPen sistemei edo informazioari eragiten dieten segurtasun intzidenteak detektatzeko, jakinarazteko eta kudeatzeko.

10.2. Intzidente oro berehala eta luzamendurik gabe jakinarazi beharko da zibersegurtasuna@danobatgroup.com helbide elektronikora idatzita, honako hau adieraziz:

- Detekzioaren eguna eta ordua.
- Intzidentearen nolakoa.
- Eragindako sistemak edo informazioa.
- Eusteko eta arintzeko hartutako neurriak.

10.3. HORNITZAILEA arduratuko da intzidentearen hedapena eta inpaktua saihesteko beharrezkoak diren zuzenketa eta euste ekintzak gauzatzeaz, eta ebazpen txosten oso bat bidali beharko du gehienez ere 72 orduko epean.

10.4. DANOBATGROUPek intzidentearen ondoriozko ebidentzia edo auditoretza gehigarriak eskatu ahal izango ditu.

11. BETETZE AUDITORETZAK ETA EGIAZTAPENAK

11.1. DANOBATGROUPek, zuzenean edo izendatutako hirugarrenen bidez, aldizkako edo unean uneko auditoretzak egin ahal izango ditu HORNITZAILEAren segurtasun prozedurei buruz, dokumentu hau betetzen dela egiaztatzeko.

11.2. HORNITZAILEAk konpromisoa hartzen du erabateko lankidetzan jarduteko, beharrezko informazio, dokumentazio eta ebidentzietarako sarbidea erraztuz.

11.3. DANOBATGROUPek detektatutako akatsak zuzentzeko eskatu ahal izango du, eta HORNITZAILEAk adierazten zaizkion epeetan inplementatu beharko ditu ekintza zuzentzaileak.

12. ERANTZUKIZUNA ETA ZEHAPENAK

12.1. HORNITZAILEA izango da ez-betetzeak DANOBATGROUPi eragiten dizkion kalte eta galera zuzenen eta zeharkakoen erantzule, galera ekonomikoak, administrazio zehapenak eta ospeari eragindako kalteak barne.

12.2. Arau hauek ez betetzeak berekin ekar dezake sarbideak berehala etetea, kontratua suntsiaraztea eta/edo kalte eta galerak erreklamatzea.

12.3. DANOBATGROUP ez da sistemen erabilera desegokiak edo HORNITZAILEAren arduragabekeriazko jarduerek eragindako kalteen erantzule izango.

13. IRAUPENA ETA INDARRALDIA

13.1. Arau hauek HORNITZAILEAk onartzen dituen egunetik aurrera aplikatuko dira, eta indarrean jarraituko dute kontratu harreman osoan zehar eta HORNITZAILEAk DANOBATGROUPen sistemak erabiltzeko sarbide aktiboak dituen bitartean.

13.2. DANOBATGROUPek edonoiz aldatu ahal izango ditu arau hauek, eragindako hornitzaileei eguneraketak jakinarazita edo plataforma ofizialetan argitaratuta. Sistemak erabiltzen jarraitzeak berekin dakar arauak onartzea.

14. APLIKATU BEHARREKO LEGEAK ETA JURISDIKZIOA

Dokumentu hau Espainiako legediaren arabera arautu eta interpretatuko da. Dokumentuaren ondoriozko edozein eztabaida ebazteko, aldeak Eibarko epaitegi eta auzitegien mende jartzen dira berariaz, eta uko egiten diote legokiekeen beste edozein foruri.

15. ONARPENA

HORNITZAILEAk adierazten du osorik irakurri, ulertu eta onartu dituela Danobatgroupen Informazio Sistemak Erabiltzeko Arau hauek, eta horiek betetzeko konpromisoa hartzen du, bai eta bere langileek, laguntzaileek eta azpikontratistek ere.

Hornitzailearen sinadura eta data